

Eskolaren hauzia Frantzian

Hiru egun iraun du (hazilaren 21-22-23) Heziketari buruz Parisen antolatun den Bilkurak. Fontanet jaunak, hots, Frantziako Edukazioko Ministroak proposatua zen.

Bilkura hau ez da lehen urratsa. Uztealean zenbait inkesta egina zen, heziketari buruz galde-zerrenda luze eta zabal bat hedatuz hortarako. 300 inkestagile ibili ziren lan hortan Frantzia osoan. Irakasleak, ikasleak, gurasoak eta enplegatzaileak izan dute erantzun-hitza.

Erantzun horiek jarraiko sei sailetan banandu dira: 1) Heziketaren helburuak. 2) Eskola-irakaskintzak. 3) Heziketa etengabea. 4) Eskola eta mundu-ingurua. 5) Irakasleak. 6) Egiturak.

Bilkura hortan sei sail horiek hartu eta banan banan aztertu nahi izan dira. Hori egiteko, 700 lagun bildu dira. Denetarik: irakasle, ikasle, guraso, enpresa-gizon, sindikato, alderditako...

Sail bakoitzak presentatzaile bat zuen. Honek inkesten erantzunak bildurik zertan zegoen hauzia aurkezten zuen, azter-bide gisa, eztabaida gidatzeko, bide batzuk markatuz. Dokumentu bakoitza, gero, taldeka aztertua izan da.

Ez dadukat puntu bakoitza zehazki agertzerik. Giroa, giroa bakarrik azalduko dut hemen. Eta hori ere, oihartzun gisa, ez nai-eta hara «deitua» izan. Eskuin-ekzer (eta hain zuzen eskuineko eta ekzerreko) egunkariak jasorik somatu ahal izan dudana berri emanen dut soilki.

UKAPENEAN BATEKIN

Heziketaren erreforma gauzatzeko omen zen Bilkura hau. Antolatzaileen ahortan horixe zen asmoa. Inkestaren bidez, oraingo elkarriketaren bidez, nondik nora jo beharko lukeen datorren Edukaziaren lege berriak jakin nahi zuten Fontanet ministroak eta honen laguntzaileak. Baina jendeak ez ditu horren eraz Ministroaren esanak sinetsi. Mihin gaiztoek diotenez, erreformaren funtsezkoa jadanik idatzia dago. Horrela bada, hemengo proposamenduak ez dira erabaki bilakatuko, eta bai adabaki. Bilkura honekin, Fontanet-ek itxura egin nahi du, ez besterik. Ministroak, honekin, Gobernamentuaren «participation» famatua martxan dagoela erakutsi nahi du. Hala diote «mihin gaiztoek».

Consensus bat ez da posible izan solaskidieren artean. Edo hobe, batasun bakarra hortanxe ikusi da, hots, Fontanet-ek ez berbitzurik eskaintzen, Bilkuraz baliatu nahi zela Fontanet bere erreformari prestigio emateko uste izanik bildu da jendea. Eta eskuinak ez dio lagun du nahi izan hortan, erreforma hori (hauentzako) madarikatzen duten kulturazko iraultzaren zati bat delako. Ezkerra ere ez dago Fontanet-ideia berririk eskaintzeko prestu, proposamendu horiek denak ezarritako sistima finkatzeko erabiliko direlako. (Konfuzioren esanarekin bat lotzeko hauek: «pareta garbitzea alferrik da, zimaurrez egina denean»). Talde bakoitza, esan genezake, ideiaz baino mesfidantzaz hornitua geroi da Bilerrara. Ez du inork sekulan amore eman nahi izan.

BARNETIK ETA KANPOTIK ERASOA

Mila modutan agertu da hasarrea: aldamean bilkurak eginez, azalpen-oriak zabalduz, bakarrikzketen bidez, eta bilkuratik aldeginaz... Biderik ez da falta hortarako.

UNI Baatsun eskuldarrak (Union Nationale Interuniversitaire) Batzar hau kulturazko iraultzaren osagailu bat bezala salatu du:

«gure biltzura ongi oinarritua zen, bai. Presentatzaile gehienena joera, inkestagile gehienena bezalaxe (ezker muturreko eta, baita, kristau progresistak) hastapen berek agertu da, esaterako, manipulazio-joku jakin baten bidez, onartuak bezala emanez hain zuzen eztabaidagailu diren arazoak...».

Argi eta garbi esanez, beste gauza askoren artean, UNI delakoak eskolaren demokratizatzea salatu nahi luke, selekzioa beharrezkotzat joaz.

Beste muturretik, Heziketa gaiez axolatzan den espezialista ezkerter talde batek errotik haizpe-ratu du Batzarraren joera bezala helburua. Dokumentu horietan berez gauza onak egon arren, diote, arazo hau politikazko eta gizarte-egoerari lotu gabe ikasi nahi da. Eta gainera, oinarritzko arazo zenbait falta da hor, halanola, lanaren eta lanik-ezaren, «formazioitzi baztertuena», haurzaroarena, heziketa etengabearekiko ugazaben agintea, mailu-ikasle harremana, eskola eta gizarte-borroken lotura... Beste zenbaitetik Bilkuratik aldegin dute, hasarrea erakusteko eta, batzutan, kontra-bilkurak egiteko. Es-

kolan diharduten zenbait sindikato-eren jokabidea hori izan da. SNES-ek (Syndicat National des Enseignements Secondaires) martxoan egiten duela. Heziketarekiko Bilkura berak, agindu du. UNCAL-ek (Union Nationale des Comités de lutte licencés) eskolatan batzarrak egin ditazela eskatu die gatzeei. Alderdi Komunistak Mutualité-n egin du, 22-an bertan eskolaz Batzar bat. Eta-ber...

PARODIA BAT OTE?

Kritika gisa gauza asko esan daiteke. Zalantzarik gabe, eskuina, proporzionaliki, zegoikiona baino ugariago egon da Bilkuran. Eta hori ez da ustekabez gertatu. Bigarren, gatz-teak —harrizteko, ezta?— aski gutxi apaituak izan dira. Eta gero, gatz-teen artean, «gauchiste» edo dirrelako ezkerterrak falta izan dira. Ez dira deituko izan. Zeuden gatz-teak, sindikato ezagun batzuetakoak ziren gehienak, AK-ren hurbilekoak.

Fontanet eta Inquirikoen asmo «izkutuak» (baldin bazegoen holakorik eta zegoen neurrian) alde batera utzirik, Bilkura hau ez da alferrikakoa izan, Le Monde eguneroko Gaus-sen jaunak dioenez. Zergatik onuragarri? Labur esanik: lehenengo al-diz Frantziar heziketa-arazoaz pen-tasamendu-mota guziaz delitu dirrela-ko; ghetto-tatik kanpoko lana izan delako, gurasoak, eskola-gizonak eta enpresagizonak batera bilduaz; eta inkestatz ere egin dira, alegia, «oinarriari» del egiteko oihitura sortu da. Aurrentzean gelditu ezingo den mugimendua abiatu da, Gaus-sen-en iritzian.

GEROARI BURUZ

Bilkurara etorri aurretik, bazekien eskuinak eta ezkerrek zer esan eta zer salatu.

Eskuinak selekzioa beharrezkoa dela azpimarkatu du, eskolaren soz-ializazioaz mesfidantza erakutsi du, eta berrikeritza guzian gorrotoa agra-rian jarri.

Eta ezkerre? «Dena ala deusez» delakoaren defendatzaile agertu da. Fraseologia progresista batekin eta aldakuntza oso baten esperantzian eta izenean, gerorako utzi du dena.

Ezkerter orok ez du, halere, jokabide hau hartu. Korporatibismoa ez du onartu nahi izan, esaterako, CFDT sindikato ezkerterrak. Erre-fomagintzari emana ikusten ahal du-gu, oraingoan, CFDT? Iraultza-bidea utzirik, beraz? Ez, dio Michel Rol-land-ek, sindikatoaren izenean. Rol-land-ek, dienez, ez du anatemaren eta intolerantziaren bidez etorkizun hobeagorik blokeatu nahi, eta hori haur guzien beharkezinen alde.

Michel Rolland-ek badaki, eta bada-kiela erakusteko gogoratu egiten du, eskolaren krisia gizartearen kon-tradizioen isplutzea dela, eta he-ziketa-sistima bat gizarte sozialista batetan soilik gerta daitekeela be-netan on. Hori hola uste delarik, bi-tertean zer egin eskolan? CFDT-k berrikuntza hortan parte-hartzea era-baki du. Eta hori, kapitalismoa bera ere erreformak egitera behartua dago elako gaur. Eta bide hortan sarturik, ezkerrek ere baduela zere-gin hori, pentsatzen du Rolland-ek, halanola, eskola denei irekitzeko joera azpimarkatuz, eskolan demo-krazia erakutsiz eta demokraziara-ko hezituz, etabar.

JOAN MARI TORREALDAY

Greziaren historia trixtea

Aste honetako nere lantxo Greziako azken gertarietaz zuzendu nahi nien. Baina, egia esan, behar bezalako informaziorik izan ez dudalako, beste batetarako uzten dut nere azterketa. Gaurko honetan, azken sei urte hautan izan diren zenbait gertaria zehatz eta labur-emango ditut. Ikusten den bezala, Papadopolos agintaritzak ez du asko iraun. Motza eta lotsagarria izan da, Bere ondorengoa ere ez da ederragoa izango.

1967 urtea

Apirilak 21: auteskundeak baino ilabete lehen, armadak agintaritza bereganatzen du.

Apirilak 24: Yaros uhartera milaka pertsona deportatuak izaten dira.

Maiatzak 9: Pattakos koronelak honela dio: «Auteskundeak eragozteko egin dugu guk geure iraultza».

Maiatzak 22: Isilpean, ezker kutsuko «Aberri elkarteak» sortzen da.

Abuztuak 10: Papadopolos koronelak bere agintea indartu eta sendotzen du.

Gobernuaren ekintza aurrera eramateko sorturiko erakundea, bere menpean egongo da.

Abuztuak 15: Gobernuaren aurka, isilpean, «Demokraziaren zain-tzaile» deritzan erdi-ekzerreko erakundea sortzen da.

Abenduak 13: Papadopolos aurka azpi-kolpe bat garziki ateratu ondoren Konstantino erregea berberatzen da.

Abenduak 14: Papadopolos lehen ministro, eta, baita barruko arazoetarako ministro ere, izendatzen da. Errege-orduko eginkizuna bete-tzeko Zoitakis generala izendatzen dute.

1968 urtea

Urtarrilak 17: Andreas Papan-dreuk, espetxeetik ateratu ondoren, berresteko bidea artzen du.

Urtarrilak 26: Erregearen azpi-kolpean parte artu zuten 18 gene-ral eta 15 koronela gudarosteko kargu guziaz kentzen zaizkie.

Otsailak 14: Greziako alderdi komu-nista barnean, borroka sortzen da. Geroztik alderdi hau, bitan za-titurrak biziko da.

Otsailak 26: Andreas Papan-dreuk gobernuaren aurkako PAK deritzan erakundea sortzen du. Honekin, be-rar, gobernuaren aurkako iru era-kunde berri ditugu Grezian.

Abuztuak 13: Papadopolos, aten-tade batetik, bizirik ateratzen da.

Irailak 23: Autarkia ematen du-tenetik %-eko 90ek onartzen dute Konstituzio berria. Autarkia eman ez zutenak %-eko 22,3 izan ziren. Diktadura baterako asko da.

Urriak 22: Urteterdi batean gel-dirik egon ondoren, Ipar Amerikak berriro ere gudurako tresna andiak ematen dizkio Greziari.

Azaroak 1: Erregearen garaian ministro eta «Erdiko Batasunaren» lehendakaria zen Jorge Papandreu-iltzen da. Bere enterroa, gobernu-aren aurka ikaragarritzko manifestazio edo agertze bat izan zen.

1969 urtea

Urtarrilak 31: Europa Kontseilu-ko Batzarrak gaitzesten du Papa-dopolosin regimena.

Maiatzak 8: Europako parlamen-tuak eritsitua egoera kentzeko es-kaetzen dio Papadopolosi eta baita zinezko auteskunde batzuk egiteko ere.

Azaroak 30: Europako giza-esku-bideen aldeko Batzordeak, Grezi-ako espetxetan eta beste lekutan tortura edo zigorra, eguneroko o-gia dela adierazten du mundu guzian aurrean argazki eta beste doku-mentu askoren bidez erakutsiaz.

Abenduak 12: Europako kontsei-lutik Papadopolosek Greziaren izen-a kentzen du. Bera aurreratu ez bazen botea izango zen.

1970 urtea

Abuztuak 10: Deportatuak izan-dako 500 pertsona askatuak izango direla adierazten du Papadopolos-ek.

Azaroak 7: Iniziorik egin gabe iru urtez geroztik 170 sindikalista espetxeratuak daudela erakusten du izirik egindako ikerketa batek. Egun batzuk geroago, jende asko, baxu ere erdi grotko jendea, espe-txeratua izaten da.



Atenasko Politeknika Eskolako ormak

Abenduak 19: Grezian politika bizitza normal bat ez dela ezarri-ko berari egoki deritzon arte, argi eta garbi adierazten du Papadopolos-ek.

1971 urtea

Abuztuak 26: Papadopolosek go-bernu berria osatzen du. Berarekin batera kolpea eman zuten milita-rrak bazterten ditu, beren ordez tekniko jendea ezarriaz.

Urriak 20: Resistenzirako aberri kontseilua sortzen da: Kontseilu honen barruan lau alderdi edo era-kunde arkitzen dira. Errege-zaleak badira. Badiruddi, beraz, rejimen-a-aren aurkako erakunde indartzen ari direla.

1972 urtea

Urriak 1: 1967 urteko Apirilaz gero, Grezia gudu egoeran zegoela-rik, Papadopolosek egoera hori ken-tzen du. Lan urte pasean Grezia, beraz, gudu egoera batean bizi izan zen. Benetan, ez da txantxetako.

Otsailak 7: Itun bat medio dela Ipar Amerikako VI garren flotak Pireoko portuan sartzeko eskubidea du.

Martxoak 21: Errege-orduko kar-

gua zuten Zoitakis jenerala aginta-ritzatik botetzaz Papadopolosek erre-ge orduko kargua bere gain artzen du.

Martxoak 30: Ipar Amerikak 36 Phantom abioki ikaragarriak ematen dizkio Greziari.

Azaroak 20: Egun honetan egi-ten da ikasteen lehen manifestazioa edo agertzea.

1973 urtea

Urtarrilak 26: Ikasteen mugimen-dua indartzen ari da. Gero eta sal-tsa gehiago dago. Poliziak gogor jotzen du. Apirilak 6: Athenasko Unibertsitateak itxeko agintzen du gobernuak.

Maiatzak 23: Erregearen alde az-pi-kolpean bat eman nahi izan du-tela eta, bi almirante espetxeratuak izaten dira.

Ekainak 1: Grezia errepublika bi-hurtzen da. Ordu arte Grezia mo-narkia zen, bere errege Konstan-tino zelarrik. Beraz, egun honetatik Konstantinok bere erregetza galtzen du.

Azaroak 25: Papadopolosek bere egintaritza gaitzen du. Oraingo ho-nertan, jeneralki dira negusi. Za-kurrak zuri ala gorri, beti zakur!

J. ELUSTONDO

NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK
OLLOTEGIAN?
...Ez. FAGOR'ek
sukaldian

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Getaria, 10 - Urrutzizkifia: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA